

## **BIZKAIA - KURDISTAN EGONALDI DEIALDIA 2022**

Zabalik **2022ko apirilaren 15era arte**

### **HELBURUA**

Egonaldi artistikoen deialdi honen xedea honako hau da: sortzeko, elkarlanean aritzeko, ikertzeko, eta ezagutzak eta eskarmentu soziopolitikoak eskuratzeko aukera eskaintzea bestelako pertsona eta testuinguruekin elkarrizketan. Truke programa hau **Bizkaiko foru lurraldean bizi diren edo Bizkaian jaio diren egileei zuzenduta dago (Bilbaoarten bekadunak izandako artistak ere kontuan hartuko dira).**

Gehienez **2 hilabeteko** epea daukan egonaldi programa da Kurdistan Irakiarrean, non **lantokia, ostatua eta zuzkidura** emango diren.

Eskaera bat bidaltzeko oinarriak irakurri eta **inprimakia bete** behar duzu.

Zalantzarik izatekotan, jarri zaitez gurekin harremanetan

[hello@movingartists.org](mailto:hello@movingartists.org)-en eta lehenbailehen erantzungo zaitugu.

Moving Artists irabazi asmorik gabeko elkarte bat da, Bilbon sortua 2017ko urtarrilean, zeinak giza eskubideen eta artearen elkargunean lan egiten duen. MAek ideia eta motibazio nagusi batekin lan egiten du: praktika artistiko garaikidea desagertzeko arriskuan dagoen ondare immateriala da, eta babestu egin behar dugu, dela gatazka edo gatazka osteko egoeretan, dela erregimen totalitarioetan.

Gure erakundearen lana da artisten, artearen eta kulturaren langileen mugikortasuna erraztea, kultura-isolamenduko eremuak sorburu zein jomuga gisa harturik. Gure arabera, artisten bizipena bide zuzena da aniztasunean hezteko eta etorkizunari begira ondarea sortzeko.

Sortu daitezkeen garaikidetasun anitzak defendatzen ditugu, eta alde batera uzten ditugu "kalitate artistikoa" ezartzen duten irizpide mendebaldarrak.

# Moving

Gatazka, gatazka osteko edo isolamenduko egoeran ezberdinak dira honako kontzeptuak: lekua, izatea, gorputza, komunitatea, komuna... pertzepzioa bera, baita materialen dimentsio formala. Zentsu horretan, elkarriketa kritikoak eta solasaldiak erraztu nahi ditugu eta, horretarako, laguntza logistikoa, kontzeptuala eta ekonomikoa emango diegu egileei, lan artistiko berrien sorreran eta kontzeptualizazioan aurrera egiteko.

Hautatutako artistak Suleimaniyah hiriaren bihotzean biziko dira, Kurdistan Irakiarraren hiriburu kulturalean.

Ostatua etxe tradizionala da, bi gela ditu, sukaldea, komuna eta gune komun bat, non wifia dagoen.

Artistek estudio bat ere izango dute eskura tokiko bi artistekin batera garai bateko Tabako Fabrikaren hangarretan (gaur egun Karge Kultur kultura zentroa).

**Kurdistan irakiarra eremu seguru eta baketsua da. Moving Artistsek eremu hau aukeratu zuen gure erakundeak herrialde horrekin daukan lotura bereziagatik, bere historiagatik, kulturagatik eta geopolitika garaikidean daukan balioagatik, baita eskaintzen duen segurtasunagatik ere.**

## EGUTEGIA

- Deialdia zabalik dago 2022ko martxoaren 15etik apirilaren 15era (24:00).
- Hautatutako proiektuen erabakia (2) jakitera emango da apirilaren 16an.
- Artisten egonaldiak 2022ko irailaren 7tik azaroaren 7ra gauzatuko dira.

Artists

## **EGONALDIAREN ZUZKIDURA**

Egonaldiak honakoa eskaintzen die onuradunei:

- Bi hilabeteko egonaldia Kurdistan Irakiarrean.
- Lekualdaketaren antolaketa.
- Bidai poltsa 1.000 €.
- Ostatua.
- Lantokia.
- Laguntza logistikoa.
- Jarraipena eta elkarriketa.
- Murgilketa eta lana errazteko tokiko kontaktu sarea.
- Artisten jardutearen zabalkundea eta proiektua aurkezteko laguntza bai jatorrizko bai helmugako testuinguru artistikoetan.

## **ESKATZAILEEN BALDINTZAK**

Deialdi honetan hautagaia izateko beharrezko da:

- Pertsona fisikoa izatea.
- Adinduna izatea.
- Bizkaian jaio izana edo bizitzea edo Bilbaoarteko bekadun ohia izatea.
- Arte garaikidearen arloan profesionalki proiektu artistikoak garatu izana edo horien garapenean jardutea, edo arlo honetan ibilbide profesional artistikoa hasteko asmoa izatea egiaztatzea.
- Ingelesez aritzeko jarioetasuna izatea.
- Inskripzio inprimakian eskatutako dokumentazioa aurkeztea.

## **PROIEKTUAREN BALDINTZAK**

Solasaldia, trukea eta elkarren arteko parte-hartzea sortzea da truke hauen xede nagusia, jardute artistiko garaikidearen sorkuntzaren eta babesaren alde elkarrekin lan egin ahal izateko gatazka edo gatazka osteko egoera batean,

# Moving

zeinak lekuko kultura langileak tokia eta euren lana uztera behartzen ohi dituen. Hori dela eta, MAek lehentasuna emango dio **arte garaikidearen inguruaren barruan parte-hartzearen garapenarekin zerikusia daukan proiektu bati.**

Artistak gutxienez 2 proiektu garatu beharko ditu, berdin tailerrak zein bestelako elkarlanerako ekintzak, Sulaimaniyahko komunitate taldeen beharrei erantzuteko. Programak artistaren berezko jardutea erantsi beharko du proiektu kohesibo bat garatzeko baliabide gisa, X emaitzarekin egonaldiaren bukaeran. Emaitzek honako formatuak izan ditzakete: argitalpena, filma, podcasta, erakusketa, antzezpena, euskarri digitalak, eskultura edo bestelako edozein jendaurreko aurkezpen.

Erabakia honako irizpide hauen arabera hartuko da:

- Hautagaiaren ibilbidearen eta proiektuaren arteko koherentzia.
- Proposamenaren egokitasuna Moving Artistsen ikerkuntza lerroen, oinarrien eta programaren arabera.
- Bideragarritasuna eta egokitasuna Moving Artistsen baliabideen arabera.
- Proiektuaren hedadura publikoa.
- Tokiko lotura beste artista, produktore kultural edo pertsonekin.

Artists

## ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA

Egonaldia eskatzeko beharrezkoa da honako webgunean dagoen inprimakia betetzea: [www.movingartists.org](http://www.movingartists.org) eta ondorengo dokumentazio pdf formatuan aurkeztea. Idazkiak gazteleraz, ingelesez edo euskaraz onartzen dira.

- CV eguneratua (gehienez orri 1).
- Proiektuaren deskribapena eta intereseko arloak, baita agenda bi ekitaldi barne. (gehienez 2 orrialde)
- Hautatua izatekotan beharrezkoa izango da erroldatze ziurtagiria aurkeztea (edo jaiotzakoa).

## EPAIMAHAIA

Proiektuen hautaketa epaimahai misto batek egingo du, zeina erabakia aho batez hartuko duten artearen arloko 2 profesionalak eta Moving Artistseko kide batek osatuko duten.

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

1. Egonaldi eskaera aurkeztutako pertsonak euren onarpena jakinarazi beharko dute, gehienez 7 egun balioduneko epean, ondorengo helbidera email bat bidaliz [hello@movingartists.org](mailto:hello@movingartists.org).
2. Egonaldian parte hartuko duten pertsonak ondorengo baldintzak onartzen dituzte:
  - Parte hartzea jendaurreko aurkezpenetan Moving Artistsek eskatzen dienean, zeinen formatua erakundeak berak aukeratutako duen, egileari galdetzeko beharrik gabe.
  - Parte hartzea programaren zabalkunderako ekintzetan, Moving Artistsek aproposak deritzon bideen bitartez.

- Baimentzea artista beraren edo bere obraren irudien erabilera, egonaldi programaren zabalkunderako helburu bakarrekin.
- Egonaldi artistikoa garatzea Kurdistan Irakiarrean 2022ko irailaren eta azaroaren bitartean hemen ezarritako baldintzen arabera, egonaldiaren lekuko pertsonetikiko eta ohiturekiko hezibide oneko eta errespetuzko jarrera izanez.

3. Deialdi honetan parte hartzeak honako oinarri eta baldintza hauen onartzea dakar, baita parte-hartzaileen mendekotasuna Moving Artistsek horien inguruan egindako erabakien aurrean. Baldintza horiek betetzen ez badira Moving Artistsek egonaldia indargabetzeko edo eteteko eskubidea gordetzen du.
4. Gure hautaketa ikuspegiak kontuan hartzen ditu familia aniztasuna, aniztasun afektibo-sexuala, eta genero aniztasuna, eta edozein nortasun eta orientazio sexualaren aurreko aitortpena eta errespetua sustatzen ditu.

## **DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA**

Deialdira aurkezten diren pertsonen datu pertsonalak Moving Artistsen fitxategi batean tratatuko dira, eta ez zaie inoiz daturik lagako hirugarrenei. Datu hauek deialdiaren garapenerako eta ondorengo komunikazioetarako baino ez dira erabiliko.

Zalantzarik izatekotan honako helbide honetara idatzi dezakezu:

**hello@movingartists.org.**

Webgunea: [www.movingartists.org](http://www.movingartists.org)

# Moving

**Babesa:**



**Laguntza:**



Artists